

## Pío Baroja

**EGILEA: Félix Maraña**

**ESTEKA: Liburutegi Zerbitzua**



Pío Baroja euskal herritar nobelagilea Donostiako Okendo kalean jaio zen 1872ko abenduaren 28an eta Madrilen hil zen 1956ko urriaren 30ean. Betidanik, eta bereziki, 1912an Bidasoako nafar eskualdean "Itzea" famili etxea eskuratu zuenez geroztik, Don Pio bere Euskal herriari oso lotua bizi izan zen, eta bere jarrera, munduaren gaineko begirada, eta bere-berea zuen historiaren zentzua, oso loturik daude herri horren paisaia, memoria eta pentsamoldearekin. Baroja intelektualaren eta gizonaren bizitzako ibilbidean, inondik ere bere garaiaren adierazgarri den horretan, azpimarratzekoak ditugu, alde batetik, independentea, ezkortasuna eta eszeptizismoa, eta, bestetik, haren narrazio obra berezia, osotasunean hartuta gure mendeko literaturako begirada benetako eta hunkigarrietariko bat dela esan daitekeena.

Hiri batean baino gehiagotan bizi izan zen arren (Madrilen, Iruñean, Valentzian) beti izan zion jaidura berezia Donostiari; ez, halere, hango gizon publikoen jokabideei. Itsaso ondoan jaio izana askatasunaren seinale iruditzen zitzaion. Behin, 1935eko abenduaren 15ean Udal Museora (gaur San Telmo Museoa) joan zenean, Victorio Macho eskultoreak kolegiatarako berari egindako busto bat inauguratzera, honako hitzok esan zituen : "Nire oroipena ezkututzen bada, eta bustoak hor irauten badu, pozik nengoke, ahal balitz, etorkizunean begiratzen dion jendeak jakin baleza irudi horren eredu izandako gizona egiaren zale amorratua, hipokrisiaren eta gezurraren gorrotatzailea, eta, bere denboran besterik bazioten ere, bere herria bihotzetik maite zuen euskalduna zela"

Pío Baroja Serafín Baroja Zornozen semea zen. Aita, meatze-ingeniarria eta kultur gizona zen, Donostiako literatur bizitzan parte hartu zuena, izan ere liburuak eta bertsoak argitaratu zituen eta egunkari liberaletan gerrako kronikari izan zen. Ama Carmen Nessi Goñi zen, familian aurreko italiarrak zituena. Pioz gain, beste hiru seme-alaba ere izan zituen: Darío, 1894an hildakoa, Ricardo, pintore eta idazlea, eta Carmen, hau ere idazlea eta sentsibilitate handiko emakumea, Rafael Caro Raggiorekin ezkondua. Rafael Caro izango zen Barojaren obren argitaratzaile nagusia.

1879an familia Madrilera joan zen bizitzera eta 1881ean Iruñera. Bost urte egin zituzten Iruñean, idazle gaztetxoaren prestakuntzan oso garrantzitsuak. Han jaio zen Carmen Baroja, Julio eta Pio Caro Barojaren ama. 1886an, osteria Madrilen, [\*Las inquietudes de Shanti Andía\*](#) (*Xanti Andiaren kezka*) liburuaren egileak batxilerra bukatu zuen eta, hurrengo urtean, medikuntzako ikasketak hasi zituen Unibertsitate Zentralean. Bere familia Valentziara bizitzera joan

zelarik, hango unibertsitatean amaitu zuen karrera 1891n, baina Madrilen doktoratu zen 1894an minari buruzko tesi batekin : *El dolor: Estudio Psicofísico (Mina : Azterketa Psikofisikoa)*. Urte berean hartu zuen Zestoako mediku plaza. Zestoan urtebete besterik egin ez zuen arren, erabakiorra izan zen bere idazle bizitzan. Bizipen horietatik sortuko zen bere lehen liburua, [Vidas sombrías](#) (*Bizi terraltsuak*).

Sendagile esperientziaren ondoren Madrilerara itzuli zen 1896an, bere izaba Juana Nessiren okindegiar Ricardo anaiarekin batera arduratzeko. Aldi horretan idazten jarraitu zuen eta, [Aventuras, inventos y mixtificaciones de Silvestre Paradox](#) (1901) nobelan, honako hau ipini zuen protagonistaren ahoan "*Labartatarrak, hala zeritzek okin hauei- esan zion Silvestrek Ramirezi, zain zeudela,- jende bitxi xamarra dituk; bata pintorea duk, bestea medikua. Okindegi hau zeukatek, hala moduz dabilena, ez bata ez bestea ez direlako etxeaz arduratzen. Pintoreak ez dik pintatzen; lagun batekin batera makinak asmatzen dizkik; medikuak, berriz, noizean behin misantropialdiak izaten dizkik eta, halakoetan ganbarara alde egiten dik, han itxita, bakarrik egoteko*".

Saso horretan bete-betean literaturari lotzea erabaki zuen eta Madrillgo egunkari eta aldizkarietan idazten hasi zen. 1899an Parisera joan zen: han [Machadotar anaiekin](#) harremana izan zuen eta [Oscar Wilde](#) eta [Reclus](#) ezagutu zituen. 1900ean, [Vidas sombrías](#) (*Bizi terraltsuak*), argitaratu zela [Azorín](#) ezagutu zuen, eta geroztik bizi guztian adiskide izan ziren. Espainiako hainbat herri eta hiritan barrena ibili zen, [Darío de Regoyos](#), [Ramiro de Maeztu](#), [Ciro Bayo Segurola](#), Paul Schmitz edo anaia [Ricardo](#) lagun zituela, eta bidaiari horietako bizipenak narrazioetan ematen zituen sarri. 1902an omenaldi bat egin zioten Madrilen, eta bertan egon ziren [Galdós](#), [Maeztu](#), [Valle-Inclán](#), [Azorín](#) eta [Mariano de Cavia](#). Hor ageri da bere denborako idazleen artean zeukan itzala eta kultur bizitzan bere idazlanak hartzen ari ziren balio gero eta handiagoa. 1903an Tangerrera joan zen "*El Globo*" egunkariaren gerrako berriemaile izateko. 1906an berriz alde egin zuren Londresera eta Parisera eta, hurrengo urtean, Suitzan eta Italian egon zen. Italiara, amaren jatorrira, berriro itzuli zen hurrengo urtean.

Pío Barojari kezka berezia sortzen zioten faktore etnikoek, eta garrantzi handia ematen zien familiako aurrekari biologikoek izaera taxutzen duten eraginari. Ildo horretan, honako hau idatzi zuren: "*Ni, neure aurrekoengatik, euskaldun eta lonbardiarrak nahasketa naiz: zazpi zortziren euskaldun eta zortziren bat lonbardiarrak*".

"*Ez dakit lonbardiarrak zati horrek (lonbardiarrak jatorriz saxoia da, historialariek diotenez) eraginik izan ote duen nigan; baina zalantzarik gabe, euskaldun oinarriak eragina izan du, barne izpiritual, egonezin eta istilutsua eman baitit*".

[Nietzsche](#) behin eta berriz azpimarratu du apolliniarraren (*garden, argitsu, harmonikoaren*) eta dionisiakoaren (*ilun, suhar, nahasiaren*) arteko desberdintasuna. *Ni, nahita edo nahigabe, dionisiakoa naiz*.

"*Barne dionisiakoa horrek bultzatzen nau ekintzazale izatera, dinamismora, dramara. Joera istilutsuak ez dit begirale lasaia izaten uzten, eta, ez naizenez,*

oharkabeen, gauzak desitxuratu egin behar izaten ditut, gauzez jabetu nahi batean, begiratzeko senaren kontrakoa den edukitzeko senak hartara eramanda.

"Istilurako eta ekintzarako joera horrekin batera -artean, jakina, [Goyazale](#) porrokatua izan behar dut eta, musikan, [Beethovenzale](#)-, etika egarri bizia dut; berezkoa, nik uste. Hortxe ageriko da, agian, Ionbardiara."

1911an, Eugenio Abiráneta, Barojatarren ahaideaz hitz egiten familiari entzun ondoren, haren historia aztertzen hasi eta hogeita bi aleko [Memorias de un hombre de acción](#) liburu saila izango zena idatzi zuen. 1912an, Beran erositako etxea berritzen ari zela, aita hil zitzaion. Barojak etengabe idazten jarraitu zuen eta bere koinat Rafael Caro Raggioren argitaletxean argitaratzen. Rafael Caro 1913an ezkondu zen Pioren arreba Carmenekin. Urte horretan bertan idazlea Parisera joan zen eta han bazkaria eskaini zioten, [Ignacio Zuloaga](#) eta [Vicente Blasco Ibáñez](#), besteak beste, tartean zirela. 1914an, Madrilen, Pio Barojaren iloba [Julio Caro Baroja](#), antropologo eta etnografoa, jaio zen. Urte horietan zenbait hiritan (Bilbon,artzelonan, Donostian) hitzaldiak ematen, egunkarietan idazten eta bidaiak egiten jarraitu zuen. 1926an Europako beste hiru herrialdetara joan zen : Alemaniara, Herbeheretara eta Danimarkara. 1928an bere iloba [Pío Caro Baroja](#), zinegilea, jaio zen eta, urte berean, [Zalacaín el aventurero](#) nobela zinemara eramane zuten, nobelagileak berak eta bere anaia Ricardok paper bana egin zutelarik.

Errepublikari iritsi zenean, 1931n, Baroja managaitzak ez zuen berotasun handirik sentitu, bestela ere inolako antolakunde politikorengatik inoiz sentituko ez zuen bezala. Horrek bere lagun [José Ortega y Gasset](#) engandik urrundu egin zuen, hura [Marañón](#) eta [Pérez de Ayala](#) rekin batera. Errepublikaren Zerbitzurako Elkartearen bultzatzaile nagusia izan zelarik. Ostera, anarkismorako zaletasun erromantiko bat adierazi izan zuen Barojak, testu batzuetan ageri dena. Inork ez ditu adierazi, noski, Barojaren sentimentuak, idazleak berak honako hitz hauetan bezain ongi. *"Beti izan naiz liberal erradikala, indibidualista eta anarkista. Lehenbizi, Elizaren etsai; gero, Estatuaren etsai; bi botere haundi horiek borrokan ari diren artean, Elizaren kontra Estatuaren aldeko; Estatua nagusi izaten denean, Estatuaren etsai"*

[Julio Caro Baroja](#) k argi eta garbi interpretatzen du Pio Barojaren jarrera hori: *"Pertsonaren kontzientzian eragina izateko edo menperatzeko asmoz sortutako erakundeak gorroto zituen, edozein aldetakoak izakin ere; hala sozialisten ildokoak nola eskuin muturrekoak. Ezin zituen ikusi molde burokratikoetan antolatutako gizartean ongi kokatuta bizi diren pertsonak, eta, hala, anarkismoari zion begikotasuna bere izaeraren ezaugarri horretatik zetorkion. Ezinezkoa egiten zuen amets, alegia, pertsonaren merezimenduak bakarrik aitortuko lituzkeen gizartea. Eta horregatik, izaeraz liberala eta are anarkista ere izan arren, begirunez aitortzen zuen gizon handien handitasuna".* pertsonaren eta indibidualismoaren defentsa hori behin eta berriz azaltzen da Barojaren literatur obrako pasarteetan, hala nola César o nada nobelan idatzitako hau: *"Pertsonarena da errealtate bakarra Izadian eta bizitzan"*. Naturalismoaren defentsa horrek eraginda balio handia aitortzen zion [Jose Migel Barandiaran](#)

apaiz eta etnografoari -besteak beste- eta haren esku jarri zuen [Julio Caro Baroja](#) bere ilobaren prestakuntza.

1935ean, ama hil zitzaion urte berean, Espainol Hizkuntzaren Errege Akademian sartu zen, "Idazlearen prestakuntza psikologikoa" izenburuko sarrera hitzaldia eginez; erantzuna [Gregorio Marañón](#) doktoreak eman zion.

1936ko uztailan, gerra zibilaren hasierak Berako Itzea etxean harrapatu zuen. Baroja, lagun mediku batekin, auzoko Doneztebe herrira inguratzen ari zen erreketete talde bat ikustera irten zen, eta, taldekoren batek ezagutu zuelarik, fusilatu nahi izan zuen, *"tradizioaren etsai"* izateagatik. Atxilotu eta gartzelan sartu zuten. Hurrengo egunean askatu zuten eta Frantziara alde egitera erabaki zuen, gertaeren itxura ikusirik. Egia esan, Don Pío oso garbi adierazia zuen bere iritzia gai horretaz. Honela idatzi zuen 1914an : *"Etika-egarri bizia dut; berezkoa, nik uste ... Egarririk, izaera istilutsuarekin batera, iraganaren etsai fanatiko bihurtu nau, pertsona antihistoriko, antierretoriko eta antitradizionalista, beraz (...) Antitradizionalista eta iraganaren etsai naizela esan dut eta halaxe naiz, izan, zeren eta iraganak -iragan guztiak eta bereziki espainola, gehien kezkatzen nauena ez baitzaizkit bikainak iruditzen, baizik eta beltzak, ilunak eta gizatasun gutxikoak"*. Erreketeteekin izandako istilu hartan Baroja ezagututa, bertatik atera zuen Armadako ofiziala, gero, 1956an, jenerala zela, militar uniformeaz jantzita joan zen nobelagilearen hiletetara. Parisen pasa zuen Barojak gerra denborarik gehiena, unibertsitate hiriko Espainiako Ikastetxean. Aldi horretan artikulu asko idatzi zituen Buenos Airesko "La Nación" egunkarirako. Gerrako gorabeheren eraginez, Madrilgo famili etxea desagitea ere tartean, Rafael Caro Raggio, Barojaren koinatua, porrot eginik eta gaixo zegoena, oso gaizkitu zen osasunez.

1941ean, berriro Itzean zegoela, bere memoriako lehen liburua idazten hasi zen, [Desde la última vuelta del camino](#). 1943an Caro Raggio koinatua hil zitzaion. Dolu horri arreba Carmenena gehitu zitzaion 1949an, eta anaia [Ricardo](#)rena 1953an. Pío Barojaren aldi horretako bizimodua islatua ageri da haren iloba [Pío Caro Baroja](#)ak Mexikon argitaratutako liburuaren izenburuan bertan: *La soledad de Pío Baroja*. Julio Caro Barojak ere egin ditu bere osabaren zenbait erretratu, batez ere [Los Baroja](#) liburuan.

Mitoak -neurri handi batean Barojari bere iritzietan erakusten zuen jarrera guztiz independentea inoiz barkatu ez ziotenek bultzatuak-, gizon triste eta zaputuz bezala azaldu izan du idazlea, nahiz eta esperientziak kontrakoa frogatzen duela dirudien. Horrela, xamurtasunak eta poesiak haren bizitzaren eta obraren zati handi bat ulertarazten digute, eta hor daude, haren more sena eta bizizaletasuna ere, egia esateko, [Schopenhauer](#)ren filosofiaren irakurle sutsu batengan espero litekeena baino askoz handiagoa. [Julio Caro Baroja](#)ak hau idatzia du horri buruz (1962): *"Gure osabari buruzko idatzi gehienak irakurrita, gizon goibel eta zakarra zela usteko du edozeinek. Baina, egia esan, bere bizitzako ordu askotan eta askotan alaia izan zen; alaia, bere garaiko espainol idazleatarik inor izan denik uste ez dudana adinako. Etxean inork algaraz barre egin badu, era dionisiakoan, berak egin zuen. Gainerakoak nekezago, edo kutsu hotzagoarekin, egin dugu irribarre"*.

Geldirik egon ezina zen Baroja izaeraz. Hala aditzera ematen dute, egin zituen bidaiak ezezik, baita bere kultura prestakuntzak ere. Eta halaxe erakusten du, bai pentsamentuaren, bai historiaren, eta bai literaturaren alorretan, eskuratua, irakurria eta ikasia zeukan Itzeako liburutegiko bibliografiak. Solasa eta harremana gustukoak zituen. Madrilgo etxean etengabe izan ohi zituen hizketaldiak bai gazteekin, bai lagun zaharrekin. Bera ezagutzeko gogoak agertzen zuen edozein zen ongi hartua; Barojatar guztiena zen jokabide hori, bestalde. Bere garaiaren lekuko izan zen Barojak, behatzaile lanari beti leial, harreman eta esperientzia guztietatik hartzen zituen literatura erretratuetarako nahiz sormen lanetarako oharrak. *"Nik, egia esan, adin magiko bezala daukat gogoan - diosku [Julio Caro Baroja](#)- osaba bere pertsonaien bila ari izaten zeneko hura: guk gizon edo emakume aski arrunt bat besterik ikusten ez genuen tokian, hark izaeraren mila ñabardura nabarmentzen zizkugun eta behaketa lanean jarraitzen zuen".* Eta ildo horretan gehitzen du [Caro Barojak](#): *"Zerk kezkatu ohi zuen osaba nagusiki? Gizon-emakumeen masak, giroen eta sentsazioenak. Azkenean, gehienon oharkabean egon ohi den gauza bat da, baina beti nobelagintza-artearen muina izan dena".*

Kezka beretsuak kide egin zituela eta, literatur historiak "98ko belaunaldiko" idazle eta intelektualen nominaren barnean sartu du Baroja, bere lagun [Azorín](#)ekin eta beste bi euskal herritar seinalatu eta unibertsalekin, [Ramiro de Maeztu](#) eta [Unamuno](#)ekin, batera. Hala ere, deusen gainetik bere independentziaren eta iritzi askatasunaren maitale izaki, ez zegoen eroso belaunaldiko taldean sartuta. Honela azaldu du [Julio Caro Barojak](#): *"Horregatik osaba, eszeptikoa eta etorri gutxikoa baitzen, ez zegoen eroso bere burua 98ko belaunaldian sartuta ikusirik. Osaba, sendagile arrazionalistaren, zertxobait stendhaldarraren ideiak zituelarik, bere musika gustuak eta kezka zahar ia hemezortzitarak zeuzkalarik, eta, gainera, tonu apalari emana zelarik, alegiazko izaki mehatxatzaile eta sarkastiko bezala ageri zen bizar handi eta keinu handiko gizon handien talde haren barnean, eta bere burua defenditu nahi zuen, hainbesteko seriotasunetik aldendu".*

Argitaratu zuen lehen liburua, [Vidas sombrías](#) (1900)(*Bizi terraltsuak*), mendearekin batera jaio zen. *"Liburu hau osatzen duten ipuinak Zestoako mediku nintzela idatzi nituen ia denak. Koaderno haundi bat neukan han, igoalen zerrenda idazteko erositakoa, eta, orri asko geratzen zirenez, ipuinez betetzen hasi nintzen".* Lehen argitalpen horretan Baroja nobelagileak aipatzen du hiru idazle handiren narrazio obra duela gogokoena: [Dickens](#), [E.A. Poe](#) eta [Dostoievski](#)rena. Beti aitortu zizkien beren irakaspenak. 1914an, [La dama errante](#) nobelaren Parisko Nelson etxeko argitalpenerako hitzaurrea idatzi zuenean, aipamen horiek berretsi eta zabaldu egin zituen. *Ez dut sekula ezkutatu literaturan zein miresten nuen. Hauek miresten nituen eta miresten ditut: [Dickens](#), [Balzac](#), [Poe](#), [Dostoievski](#) eta, orain, [Stendhal](#)".* Beste lekukotasun bat eransten digu [Julio Caro Barojak](#), Don piori interesatzen zitzaizkion kulturako sortzaile handien gainean: *"Bere gizon handiak zeintzuk ziren jakitea zen gakoa. Nori gorroto izan eta nor kutuneko erabakitzen erabatekoa zen, eta arbitrarioa ere bai batzuetan. [Cervantes](#) eta [Calderón](#) bere santutegian sartzten zituen, baina [Lope](#) eta [Quevedo](#) ez. [Kant](#) ohoratzen zuen, baina [Hegel](#) ez. [Dickens](#) oso begiko zuen, baina amorratzen zen (arrazoiz uste dut) ingelesek [Thackeray](#)ekin parekatu nahi izaten zutenean. Gaztetandik hitz*

egiten zuen bero-bero [Claude Bernard](#)-ez eta erdeinuz [Charcot](#)-ez. Eta ez zen erraza amorruen eta begikotasunen arrazoia jakiten, horretan euskaldun poeta zela uste baitut zinez, hau da: arrazoiketa luzeetarako ez zuen batere zaletasunik".



Pio Barojaren izpiritua bere liburu esanguratsuenetariko bateko hitzaurrean egindako adierazpenean islatua dago: "Ni Alzateko Jaun ([La Leyenda de Jaun de Alzate](#)) liburuaren egilea naiz, herri txikiko poeta, poeta apala, herri apal batekoa, Bidasoako herrikoa". Barojaren obra xamurtasunez eta gizatasunez jantzirikakoak egiaztatzen du idazle berezi honen poesi sena eta etika gogoia. Hala, behin batean, Donostiako Museora [Regoyos](#) pintorea lagun zuela egindako bisita batean, zuzendariak museoko urrezko liburuan sinatzeko

eta sinaduraren azpian bere titulu guztiak aipatzeko eskatu zionean, hauxe idatzi zuen: "Pio Baroja, gizon umila eta ibildauna". Nobelagileak 1914an idatzitako aitorten honetan ageri da marraztuta bere izaera: *Berezkoak ditudan ezaugarri horiek -joera istilutsua, etika egarria, dinamismoa, gauzez eta ideiez jabetzeko irrika, ekintzazaletasuna, geldotasunari gorrotoa, eta etorkizunerako gogo suharra- osatzen dute nire izaera literarioaren oinarria; baldin eta literario dei badakioke horrelako izaera bati, alegia, hondo kementsu baten gainean deus baino gehiago iskanbilatsua izango litzatekeen izaera bati".*

Madriren 1956ko urriaren 30ean hil zenean -hango hilerri zibilean dago lurperatua- [Julio Caro Baroja](#) honako hau zioen telegrama bidali zion Mexikon zegoen bere anaia Piori: "Gaur hil da". Zergatik eman nion euskaraz eta ez gaztelaniaz heriotza haren berria? Barnekoagoa, arretatsuagoa, ofizialtasun gutxiagokoa, iruditu zitzaidan", dio [Caro Barojak](#). Lagun eta jarraitzaile leialen talde bat -besteak beste, [Hemingway](#) eta [Camilo José Cela](#) Nobel saridunak-, eta euskal herriko lur eskukada bat -bere Bidasoako herriak zion estimazioaren agerkari- egon ziren mende honetako idazle sakonen eta zorrotzenetariko hari lur ematen.

## PIO BAROJAREN IDAZLANAK

- Nobelak
  - Trilogiak
  - Nobela historikoak
    - Memorias de un hombre de acción
    - Biografiak - Biografías
  - Beste nobela batzuk
  - Kontakizunak eta nobela laburrak
- Saiakerak
- Antologiak eta idatzi biografikoak
- Memoriak
- Antzerkia
- Olerkia
- Gidak eta ibilbideak
- Obra guztiak
- Euskarara itzultitako obrak
- Eskuizkribuak

## NOBELAK

### TIERRA VASCA

---

1900

[La casa de Aizgorri : novela en siete jornadas](#)

1902

[El mayorazgo de Labraz](#)

1909

[Zalacaín el aventurero : \(historia de las buenas andanzas y fortunas de Martín Zalacaín el Aventurero\)](#)

1922

[La leyenda de Jaun de Alzate](#)

### LA VIDA FANTÁSTICA

---

1901

[Aventuras, inventos y mixtificaciones de Silvestre Paradox](#)

[Camino de perfección: \(pasión mística\)](#)

1906

[Paradox, rey](#)

## **LA LUCHA POR LA VIDA**

---

**1904**

[La busca](#)

[Mala hierba](#)

[Aurora roja](#)

## **EL PASADO**

---

**1905**

[La feria de los discretos](#)

**1906**

[Los últimos románticos](#)

**1907**

[Las tragedias grotescas](#)

## **LA RAZA**

---

**1908**

[La dama errante](#)

**1909**

[La ciudad de la niebla](#)

**1911**

[El árbol de la ciencia](#)

## **LAS CIUDADES**

---

**1910**

[César o nada](#)

**1912**

[El mundo es así](#)

**1920**

[La sensualidad pervertida: ensayos amorosos de un hombre ingenuo en una época de decadencia](#)

## **EL MAR**

---

**1910**

[Las inquietudes de Shanti Andía](#)

**1923**

[El laberinto de las sirenas](#)

**1929**



- [Los pilotos de altura](#)  
1930 [La estrella del capitán chimista](#)

### **AGONÍAS DE NUESTRO TIEMPO**

---

- 1926 [El gran torbellino del mundo](#)  
[Las veleidades de la fortuna](#)  
[Los amores tardíos](#)

### **LA SELVA OSCURA**

---

- 1931 [La familia de Errotacho](#)  
1932 [El cabo de las tormentas](#)  
[Los visionarios](#)

### **LAS JUVENTUD PERDIDA**

---

- 1934 [Las noches del Buen Retiro](#)  
1935 [Locuras de carnaval](#)  
1936 [El cura de Monleón](#)

### **MEMORIAS DE UN HOMBRE DE ACCIÓN**

---

- 1912 [El aprendiz de conspirador](#)  
1913 [El escuadrón del Brigante](#)  
1914 [Los caminos del mundo](#)  
1915 [Con la pluma y con el sable : crónica de 1820 a 1823](#)  
[Los recursos de la astucia](#)  
1916 [La ruta del aventurero](#)

1917

[La veleta de Gastizar](#)

1918

[Los caudillos de 1830](#)

1919

[La Isabelina](#)

1920

[Los contratos de la vida](#)

1921

[El sabor de la venganza](#)

[Las furias](#)

1922

[El amor, el dandysmo y la intriga](#)

1924

[Las figuras de cera](#)

1925

[La nave de los locos](#)

1927

[Las mascaradas sangrientas](#)

1928

[Humano enigma](#)

[La senda dolorosa](#)

1930

[Los confidentes audaces](#)

[La venta de Mirambel](#)

1934

[Crónica escandalosa](#)

[Desde el principio hasta el fin](#)

## **BIOGRAFIK**

---

1918

[El cura Santa Cruz y su partida](#) .- En: Obras Completas

1931

[Aviraneta o la vida de un conspirador](#)

1933

[Juan van Halen : el oficial aventurero](#)

1934

[Siluetas románticas y otras historias de pillos y extravagantes](#)

## **BESTE NOBELA BATZUK**

---

1938

- [Susana y los cazadores de moscas](#)
- 1939 [Laura o la soledad sin remedio](#)
- 1941 [El caballero de Erlaiz](#)
- 1944 [El puente de las ánimas](#)
- 1946 [El hotel del cisne](#)
- 1950 [El cantor vagabundo](#)
- 1951 [Las veladas del chalet Gris.](#)- En: Obras Completas

<b>KONTAKIZUNAK ETA NOBELA LABURRAK</b>
---

- 1900 [Vidas sombrías](#)
- 1902 [Idilios vascos](#)
- 1918 [Idilios y fantasías](#)
- 1919 [Cuentos](#)
- 1927 [Entretenimientos \(dos sainetes y una conferencia\)](#)
- 1931 [Intermedios](#)
- 1935 [Estampas vascas](#)
- 1939 [Historias lejanas](#)
- 1940 [Los buscadores de tesoros.](#)- En : Obras completas
- 1941 [Los impostores joviales y el tesoro del holandés ; Yan-si- pao, o la svástica de oro; Los buscadores de tesoros](#)
- [Los espectros del castillo y otras narraciones](#)
- [Fantasías vascas](#)
- 1948 [Los enigmáticos](#) .- En : Obras completas
- 1952 [La obsesión del misterio](#)
- 1953 [El Poeta y la Princsea o El "cabaret" de la cotorra verde](#)
- [Intermedio sentimental](#)

1954

[Los contrabandistas vascos ; Las hermanas Mac Donald ; Los amores de Antonio y Cristina ; Los amores de un médico de aldea](#)

1957

[Allegro final y otras cosas](#)

1962

[Cuentos vascos](#)

1966

[Cuentos](#)

## SAIAKERAK

1896

[El dolor : estudio de psico-física](#)

1904

[El tablado de Arlequín](#)

1917

[Nuevo tablado de Arlequín](#)

1919

[La caverna del humorismo](#)

[Momentum catastrophicum](#)

1920

[Divagaciones sobre la cultura](#)

1921

[Escuelas germánicas](#)

[Escuelas italianas](#)

1924

[Divagaciones apasionadas](#)

[Crónica arbitraria](#)

1935

[Vitrina pintoresca](#)

1936

[Rapsodias](#)

1939

[Ayer y hoy](#)

[Historias lejanas](#)

[El diablo a bajo precio y otros ensayos](#)

1941

[Chopin y Jorge Sand y otros ensayos](#)

1943

[Pequeños ensayos](#)

1956

[La obra de Pello Yarza y algunas otras cosas](#)

[La decadencia de la cortesía y otros ensayos](#)

## ANTOLOGIAK ETA IDATZI BIOGRAFIKOAK

1917

[Juventud, egolatría](#)

[Páginas escogidas](#)

1918

[Las horas solitarias : notas de un aprendiz de psicólogo](#)

1935

[La formación psicológica de un escritor](#) .- En: Obras completas

1938

[Comunistas, judíos y demás ralea](#)

1950

[Tríptico](#)

1955

[Paseos de un solitario: \(relatos sin ilación\)](#)

[Aquí París](#)

1956

[Por el País Vasco con Pío Baroja](#)

[Golfos y pícaros madrileños vistos por Pío Baroja](#)

1961

[Mis mejores páginas](#)

## MEMORIAK

1941

[Desde la última vuelta del camino.](#) - En: Obras completas

1944

[El escritor según él y según los críticos](#)

[Familia, infancia y juventud](#)

1945

[Final del siglo XIX y principios del XX](#)

1947

[Galería de tipos de la época](#)

1948

[La intuición y el estilo](#)

[Reportajes](#)

1949

[Bagatelas de otoño](#)

## ANTZERKIA

1911

[Adiós a la bohemia](#). - En: El Cuento Semanal. - Año V, nº 239

Adiós a la bohemia [grabación sonora] / Sorozabal ; texto de Pío Baroja y Pablo Sorozábal

1926

[El horroroso crimen de Peñaranda del Campo ; y otras historias](#)

1945

[Arlequín, mancebo de botica o Los Pretendientes de Colombina](#). -En: Obras completas

1947

[Galería de tipos de la época](#)

1948

[La intuición y el estilo](#)

[Reportajes](#)

1949

[Bagatelas de otoño](#)

## OLERKIA

1944

[Canciones del suburbio](#) - En: Obras completas

## GIDAK ETA IBILBIDEAK

1929

[Guía ilustrada del País Vasco español-francés](#)

1931

[Ciudades de Italia](#)

1933

[El País Vasco](#)

## OBRA GUZTIAK

1946-51

[Obras completas](#). - Madrid : Biblioteca Nueva, 1946-1951. - 8 v. ; 23 cm

## EUSKARARA ITZULITAKO OBRAK

[Altzateko Jaun](#)

[Altzateko Jaun-en kontu zaharrak](#)

[Bizi terraltsuak](#)

[lhauterietako erokeriak](#)

[Ipuiñak](#)

[Itxasoa laño dago... Xanti Andia itxas-gizonaren bizitza ta kezak](#)

[Lur ilunak](#)

[Urtubiko dama eta beste zenbait istorio](#)

[Xanti Andiaren kezak](#)

© Félix Maraña